



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/03/15

Eskaerretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordeak norbanako batek Gizarte Ekintza Sailaren kontra aurkeztu dauen kexea eta Busturialdeko uraren kudeaketaren ganeko beste erreklamazino bat entzun ditu

Eskari, kexa, erreklamazino edo iradokizun bat aurkezteko edozein herritar joan daiteken Bizkaiko Batzar Nagusietako Eskaerretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordea gaur, barikuan, alkartu da barriro, eguneko gai zerrendan puntu bi aztertzeko. Lehenengo, Joseba Barayazarra etorri da batzordeko kideen aurrera, eta bere senide batek, iktus bat jasan eta gero, Gizarte Ekintzako Foru Sailak aurrera eroan dauen menpekotasun balorazioaren ganeko administrazino tramitazioaren eta foru egoitza batean sartzeko prezio publikoaren ganeko kexea aurkeztu dau.

Barayazarrak zehaztasun osoz azaldu dau azkenengo hiru urteetan jasaten ari dan egoerea, Gizarte Ekintza Sailetik eta testamentariatik eskatu eutsien dokumentazino guztia aurkeztu arren, “administrazino akats bat” dala eta, “guztiz defentsa barik” geratu dala, beraren kontra espedientea zabaldu dalako “kapital gitxitzearengaitik”, eta laguntza publikoa kendu deusielako. Erabagi horreek kostu ekonomiko eta sufrimentu pertsonal handia eragin deusie.

Kontau dauenez, bera eta bere abogadua sarritan alkartu dira Gizarte Ekintza Saileko arduradunakaz, eta ez dabe ezelango erantzun egokirik jaso, arazo guztia “administrazino akats bategaz” hasi zan arren. Esan dauenez, inork ez dau akats horren ardura hartzen bere gain, eta bera da ordaintzen ari dan bakarra, bere senidea be kaltetua dan arren ez dagolako zer gertetan dan ulertzeko moduan.

Barayazarrak kexea agertu dau jasan dauen tratuaengaitik, dokumentazinoa galdu dabenez dokumentu berberak behin eta barriro aurkeztu behar izan ditualako eta bere familia bidezkoa ez dan egoerea jasaten ari dalako. “Ez da posible, eurek egin dituen oso akats larriengaitik Gizarte Ekintza Saialagaz hiru urtez burrukan eta sufriduten ibili eta gero, nik betebeharrak baino ez eukitea, ezelango eskubide barik”, esan dau.

Bere esku-hartzea entzun eta gero, alderdi politikoaren txandea heldu da. Arturo Aldecoak (Taldea Mistoa) esan dauenez, “Administrazinoak egindako akats baten ondoriozko arazo bat sortu izanaren oso adibide argia da, eta holangoak gertetan diranean oso gaitza da horreek konpontzea”.

Eduardo Andrés Bizkaiko Talde Popularreko batzordekideak adierazo dauenez, “Gizarte Ekintza Sailari kontsulta bat egingo deusagu, eta gero ikusiko dogu zer edo zer egin leiken ala ez”.

“Aldundiaren kontrako burruka gogorra eta bidebakoa da”, azpimarratu dau Podemos Bizkaia taldeko Josean Elgezabalek. Isabel Cadavalek (Euskal Sozialistak) esan dauenez, penagarria da “familian egoera gaitza jasan eta gero holango arazoak egotea”.

Josu Unanue EH Bilduko batzordekideak “benetan sentiduten dauela” jakinarazo deutso Joseba Barayazarrari, jasan dauen guztiarengaitik. “Bere egoera pertsonala gaitza izan da, eta Administrazioa danok osotzen dogun arren, Administrazioak baditu bere tresnak”. Horren ostean, bere taldeak gaiaren ganeko argibideak eskatuko dituala adierazo dau.

Jon Andoni Atutxak (Euzko Abertzaleak) bere alkartasuna agertu deutso Joseba Barayazarrari, eta bere arazoa azaltzera Bizkaiko Batzar Nagusietara joan izana eskertu deutso.

Bigarren esku hartzean Joseba Barayazarrak eskertu egin deutse talde politiko guztiei “oso kostu pertsonal eta emozional gogorra daukan arazo baten aurrean erakutsi daben jarrera”. Gainera, iragarri dauenez, baliobako ekintzen ofiziozko azterketea eta eragin jakon kalte moralarengaitik ondare erantzukizuneko erreklamazioa Epaitegien aurrean aurkezteko aukerea aztertzen ari da.

Busturialdeko ura

Busturialdeko uraren kudeaketea izan da Jon Bernat Zubirik eskatuta bileran aztertu dan bigarren parte. “Ure urre; guk gure ure” lelopean, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak BUP (Busturialdeko Ur Partzuergoa) bereganatzearen kontrako eretxia aurkeztu dau batzarkideen aurrean. Zubiriren eta Iratxe Arriolaren ustez, “negozioa egiteko asmoaren” ondoriozko erabagia da. “Bereganatze horren kontra gagoz, geure erabagiteko eskubideagaz eta Busturialdean oinarritzkoa dan baliabide natural baten kudeaketeagaz jarraitu gura dogulako”, adierazo dabe. Zubiri eta Arriola oso kritiko agertu dira gaur egun uraren kudeaketearen inguruan Bizkaian dagon ereduaren aurrean eta, esan dabenez, “argumentu falsuetan oinarritutako kontakizunean oinarrituta ari da eregiten”.

Euren eretxiz, ez da egia BUP Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoan sartzea ur faltaren ondorioa danik, azpimarratu dabenez, “Oizeko hartunea barrizta eta gero, eskualdeko beharrei erantzuteko beharrezkoa izango litzatekelako”. Modu berean, adierazo dabenez, eskuratzeko horrek ez dau prezioa merketzerik ekarriko, izan be, “gaur egun Busturialdeko Ur Partzuergoaren tarifea Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoarena baino %7 merkeagoa da”. Modu berean kritikau egin dabe BUParen kudeaketea ez dala bideragarria dinon argumentua, eta kostuei aurre egitea ez dala posible esatea ez dala egia esan dabe. “Ura ez da merkantzia bat, giza eskubide bat baino, eta bardintasuna, gizarte arloko justizia eta jasangarritasuna ekonomiaren aurretik egon behar dira”, nabarmendu dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
15/03/2019

La Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía ha escuchado la queja de un particular contra el Departamento de Acción Social y otra reclamación sobre la gestión del agua en Busturialdea

La Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía de las Juntas Generales de Bizkaia, a la que puede acudir cualquier persona o asociación para trasladar una solicitud, queja, reclamación o sugerencia, ha vuelto a reunirse hoy viernes con dos puntos en el orden del día. En primer lugar, ha comparecido ante apoderados y apoderadas de la Comisión Joseba Barayazarra, quien ha presentado una queja sobre la tramitación de un expediente administrativo de un familiar suyo por parte del Departamento Foral de Acción Social, respecto a la valoración de dependencia que su familiar requirió tras sufrir un ictus y la determinación del precio público para su ingreso en una residencia foral.

Barayazarra ha explicado con detalle la dura situación que lleva viviendo desde hace tres años pues, según ha asegurado, a pesar de haber presentado toda la documentación que le solicitaron desde Acción Social y la testamentaría, “un error administrativo” ha derivado en una “total indefensión”, en la apertura de un expediente contra él por “decremento del capital” y la suspensión de la ayuda pública; decisiones que le han supuesto un alto coste económico y un gran sufrimiento personal.

Ha relatado que tanto él como su abogada se han reunido en numerosas ocasiones con responsables del Departamento de Acción Social, sin haber obtenido una respuesta adecuada, a pesar de que todo comenzó por un “error de la Administración”, del que dice que nadie se hace cargo y que sólo está pagando él, pues su familiar también está afectada, pero no en condiciones de comprender lo que está pasando.

Barayazarra se ha quejado del trato recibido, de la pérdida de documentación que le ha obligado a presentar los mismos documentos varias veces y de la injusticia que su familia está viviendo. “Lo que no puede ser es que tras tres años sufriendo y luchando con el Departamento de Acción Social por errores muy serios que han cometido, yo sólo tenga obligaciones y ningún derecho”, ha lamentado.

Tras escuchar su intervención, ha llegado el turno de palabra de los grupos políticos. Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) ha asegurado que “es un caso claro de discrepancia por un error de la Administración y cuando eso se produce es muy difícil solucionarlo”. Eduardo Andrés, apoderado del Grupo Popular Vizcaíno, ha anunciado que “vamos a hacer una consulta al Departamento de Acción Social y luego veremos si se puede tomar alguna iniciativa”.

“Es una lucha dura e injusta ante la Diputación”, ha destacado Josean Elgezabal, en nombre de Podemos Bizkaia. Isabel Cadaval (Socialistas Vascos) ha lamentado que “unida a una situación familiar complicada se dé este caso tan tortuoso”.

Josu Unanue, juntero de EH Bildu, ha dado el “pésame” a Joseba Barayazarra por todo lo que ha pasado. “Su situación personal ha sido difícil y aunque todos somos parte de la Administración, ésta tiene sus propios instrumentos”, para añadir que su grupo pedirá una aclaración al respecto.

Jon Andoni Atutxa (Nacioanalistas Vascos) ha mostrado su solidaridad con Joseba Barayazarra al que ha agradecido que haya acudido a las Juntas Generales de Bizkaia para explicar su problemática.

En su segunda intervención, Joseba Barayazarra ha agradecido a todos los grupos políticos “haber sido receptivos a un problema que tiene un coste personal y emocional muy duro”. Además, ha anunciado que se está planteando presentar ante los Tribunales una revisión de oficio de actos nulos y una reclamación sobre responsabilidad patrimonial por el daño moral que le han causado.

Agua en Busturialdea

La gestión del agua en Busturialdea ha protagonizado la segunda parte de la reunión, solicitada por Jon Bernat Zubiri. Bajo el lema “Ure urre; guk gure ure”, se ha expuesto ante junteros y junteras la oposición a la asimilación del BUP (Consortio de Aguas de Busturialdea) por parte del Consortio de Aguas Bilbao-Bizkaia, una decisión que Zubiri e Iratxe Arriola han atribuido a “las ansias del negocio”. “Nos oponemos a esta asimilación porque queremos conservar nuestra capacidad de decisión y la gestión de un recurso natural básico en Busturialdea”, han afirmado. Zubiri y Arriola se han mostrado muy críticos con el modelo actual de gestión de agua en Bizkaia, que, según han defendido, “se construye con un relato basado en argumentos falsos”.

En su opinión, no es verdad que la integración del BUP en el Consortio de Aguas Bilbao-Bizkaia responda a una falta de agua pues, han destacado, “con la renovación de la captación del Oiz, sería necesario para cubrir las necesidades de la comarca”. Igualmente, han asegurado que la integración tampoco va a suponer una bajada en el precio, pues “actualmente, la tarifa del Consortio de Aguas de Busturialdea es un 7% más baja que la del Consortio Bilbao-Bizkaia”. De la misma manera han censurado el argumento de que la gestión del BUP es insostenible asegurando que no es verdad que no se puedan afrontar los costes. “El agua no es una mercancía, sino un derecho humano, y debe priorizarse la igualdad, la justicia social y la sostenibilidad antes que la economía”, han subrayado.